ASTEKARIA | 2017ko irailaren 22an | XX. urtea | USURBIL | 711. zenbakia | www.noaua.eus TOKIKOM

# noaua

Akordio batera iritsi dira Ingemarren

Larunbatean Eskola Txikiaren Eguna Aginagan

Santueneko festak, iruditan



Argazkia: Sagardoaren Lurraldea

# Aspaldiko sagar uztarik onena


HHI-EPA USURBIL
HELDUEN ESKOLA
2017-18 MATRIKULAZIOA IREKITA
- GRADUKO IKASKETAK (D.B.H)
- INFORMATIKA IKASTAROAK
- EUSKARA (OINARRIZKOA)
- INGELESA MINTZA PRAKTIKA
- FRANTSESA
ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarte.eus


New York
Noaoa
BIDAIAK
943 373 613
ABENDUAREN 3TIK 10ERA
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.


AÑORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
LUNA PULIDO CRISTANOLA
Beirazko itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!
seeglass one
·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

## Albistea iruditan

# 1.950 marihuana landare Atallun

Atallu industriaguneko pabilioi batean 1.950 marihuana landare atzeman zituen Ertzaintzak aurreko astean. Pabilioia errentan hartua zuten bi gizonezko identifikatu zituen landareon ekoizpenarekin nahastuak daudelakoan “eta ikerketapean daude osasun publikoaren aurkako delitu baten ondorioz”, Ertzaintzak prentsa ohar bidez jakitera eman duenez. Ikerketak zabalik segitzen du, “ez da baztertzen pertsona gehiago nahastuak egotea”.

Polizia operazioa irailaren 14tik 15erako gauean,“itxuraz jarduerarik ez zuen industria-pabiloi batean, gauez eta udal-baimenik gabe, egiten ari ziren obren ondorioz hasi zen”. Antza, “gizonezko bat pabilioitik irtetera zihoala ikusirik, gizonezkoa geldiarazi eta identifikatu zuten. Gizonezkoak agenteei eraso egin zien, eta ihes egiten saiatu zen. Ertzainek atxilotu zuten agintaritza-agenteen aurkako atentatu-delituaren akusaziopean”. Pabilioi barruan 40 zentimetro inguruko altueradun 1.950 marihuana landare aurkitu zituen Ertzaintzak. “Plantazioak ureztatze-sistema automatizatua zuen, potentzia handiko ia ehun lanpara, bost haizagailu eta bederatzi erauzgailu, bi tximiniatara konektatuta”, berri eman dutenez.



**Pabilioi barruan 40 zentimetro inguruko altueradun 1.950 marihuana landare aurkitu zituen Ertzaintzak.**

## Laburrean

### 1955. urteko kintoak, izen-ematea ixtear da

1955ean jaiotakoen eguna urriaren 21ean izango da. “Errioxara bisita eginez egunpasa egingo dugu”. Izena emateko azken eguna irailaren 30a izango da:
Maribi Arrospide 675 006 445
Patxi Arruti 615 760 458

### Kilometroak jaia, aurten inoiz baino lehen

Aurten, ohi baino astebete lehenago, igande honetan irailaren 24an ospatuko da Gipuzkoako ikastolen jaia Oñatin. Oraingoan, “Lekaixoka!” (deiadarra) aldarripean. Informazio gehiago: kilometroak.eus

### Irailaren 29an, elkarretaratzea

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko elkarretaratzea astebete barru egingo da, irailaren 29an ostirala, iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Jon Galbete, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege–Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



Luis Aranalde

# Errebeldea

Erreforma protestantearen 500. urteurrena ospatzen ari gara, eta ez nuke amaitu nahi urte hau mugimendu horren eragile izan zen Martin Luteroren gainean zertxobait idatzi gabe.

Efemeride honen jatorria zera izan zen: 1517ko urriaren 31n Luterok protestatu egin zuen Eliza Katolikoaren aurka eta batik bat aitasantutzaren kontra. Wittembergo elizaren atean ipini zituen bere 95 tesiak. Ekintza hori izan zen hain zuzen Protestantismoaren jatorria.

Alemaniako Eislebenen jaio zen Lutero 1483an. Nekazal giroan bizi izan zituen lehen urteak baina bere aitaren ametsa zen funtzionarioa izan zedila bere semea eta horrela familiari ospea emango zion. 1501ean unibertsitatean sartu zen; lauda jotzen zuen eta filosofo deitzen zioten. 1505ean maisutasun agiria lortu zuen. Baina une larri batean Santa Anari agindu zion monje egingo zela salbatzen bazuen estutasun hartatik eta ongi atera zenez, bere liburu guztiak saldu eta agustindar monje sartu zen. 1508an apaiztu egin zuen Wittenbergo gotzainak eta ikasketa teologikoak 1508an bukatu zituen. Bibliako doktoretza lortu ondoren irakasle gisa hartu zuten Teologiako Fakultatean.

Garai honetan jabetu zen Lutero induljentzien kontu hori kristauen kontzientziaren manipulazio hutsa zela. Induljentzia da bekatuari, barkatu eta gero ere ordain gisa dagokion pena bera barkatzea eta kitatzea. Elizak bakarrik barka omen zezakeen pena hori. Erdi Aroaren azken aldean batez ere induljentzi merkataritza gisako zerbait zabaldu zen Eliza barruan. Horren kontra borrokatu zuen Luterok buru belarri. Horretaz gain, eliza karguen salerosketa, Aita Santuak ematen zuen printze itxura bere luxuekin, klerikoen bizitza lasaia eta hauen prestakuntza eskasa kritikatu zituen. Horren ondorioz, Elizak eskomikatu edo eskomulgatu egin zuen. “Hator, hitz egingo diagu”, esan beharrean, Elizatik kanpora bota zuten. Erromako buruzagiak ez ziren txantxetan ibiltzen garai hartan.

Elizarekin hautsi gabe jardun ziren beste batzuk eta barrendik eraberritze indartsu bati ekin zioten, hots, Trentoko Kontzilioak, Roterdameko Erasmok eta Loiolako San Inaziok. Honek leial jokatu nahi izan zuen Elizarekin, baina aldi berean indartsu saiatu zen bere aurpegia saneatzen, garbitzen, eta hori, bere pobreziaren eta espiritualtasun sakon baten bitartez. Inazio behin baino gehiagotan eraso izan zuen inkisizioak.

Luteroren espiritu iraultzailea Frantzisko Aita Santuak definitzen du ondo: “Nire ustez Luteroren intentzioak onak izan ziren eta erreformatzaile handi jardun zen. Garai hartan Eliza ez zen imitatzeko moduko eredua, izan ere ustelkeria zegoen, handikeria, diruaren eta boterearen irrika, horregatik protestatu zuen Luterok”.

Denok ditugu geure alderdi ezkorrak eta Luterok ere izan zituen bereak; koherentzia eza handitan erori zen, hots:

1-Antisemitismoaren tesia gogorrenak defendatu zituen: “su eman diezaiegun sinagogei, deboziozko liburuak ken diezazkiegun, gezurra eta biraoak besterik ez dituzte zabaltzen eta, rabbiei debeka diezaiegun sinagogetan irakastea… Historialari batzuen ustez Lutero izan zen nazien ideologiaren sortzaileetako bat.

2-Bere iraultzaren hasieran pobreen kausa defendatu zuen, baina nekazariak nobleen kontra altxa zirenean Luterok jauntxoen interesak defendatu zituen aristokraten laguntzaz errazago berreraikiko zuela Eliza eta.

Lehen aipaturiko San Inazio koherenteagoa izan zen bi kausa hauetan: judutarrak defendatu zituen eta txiroei lagundu zien eta baita bere jarraitzaileei pobrezia praktikatzea eskatu ere.

Gaur, 500 urte pasa ondoren, gero eta protestante gehiagok praktikatzen dituzte San Inazioren Gogoeta Espiritualak eta bestetik Elizak Luteroren tesi gehienak arazorik gabe onartzen ditu. Orain, beste 500 urte beharko dira agian protestanteak eta katolikoak berradiskidetzeko.

Aritz Gorriti | **Luis Aranalde** | Imanol Ubeda | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

## Komikia




**TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.**

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: irailak 29. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 25.

# “Baietz 1.000 aurten!”

946 ikasle aritu ziren iaz euskara ikasten, Buruntzaldeko euskaltegietan. Zenbaki borobilera heldu nahi dute abiatzear den 2017-18 ikasturtean. “Baietz 1.000 aurten!”, hortxe Buruntzaldeko udal eta euskaltegiek hilabeteotarako duten erronka. Erronka hau gauzatzeko ilusioa plazaratu zuten berriki, Urnietako Lekaio kultur etxean egin zuten agerraldian.

Eskualde mailako euskaltegietako matrikulazio kanpaina eta euskaltegietako eskaintza aurkeztu zuten. Euskara ikastera animatzen dute, “Euskara ikasiz, dena irabazteko eta ezer ez galtzeko” dugulako. Euskara ikasteak merezi duela, apustu segurua dela nabarmentzen dute. Eta merkea, ia doakoa, HABE-k bere aldetik, eta eskualdeko udalek eskaintzen dituzten %75-100 arteko diru-laguntzei esker, Usurbilen kasuan %100eko laguntza.

**Informazio gehiago:**
buruntzaldea.eus



“Baietz 1.000 aurten!”, hortxe Buruntzaldeko udal eta euskaltegiek hilabeteotarako duten erronka.

*EUSKALTEGIAK*

***“Euskara ikasiz, dena irabazteko dugu, eta ezer ez galtzeko”***

**Matrikulazio epea zabalik**
2017-18 ikasturterako matrikulazio epea zabalik dute Etumeta AEK euskaltegian irailaren 29ra arte. Euskara ikasteko maila guztiak (A1-A2-B1-B2-C1-C2), azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak, Mintzalaguna, autoikaskuntza, online ikastaroak… Aukera zabala beraz. Izen ematera animatzen dute AEK-tik. “Egizu bat. Gozatu zure hizkuntza aberastasunaz! AEK, euskara irakasteko modu %100 afektiboa”, dio AEK-k argitara eman duen bideoan. Izen emateko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 11:00-13:00 artean eta 18:00-20:00 artean.

**Informazio gehiago:**
Kale Nagusia, 43
607 609 379
usurbil@aek.eus
aek.eus
muntteri.blogspot.com.es

# Usain txarrak desagerrarazteko ahaleginean

Ez da kontu berria ke eta usain txarrekin Usurbilen dugun arazoa. Urtez luzez pairatzen ari dira herritarrak arazo hau. Ugariak izan dira kexuak ere. Azken aldi honetan berriz. Udalak bere aldetik hainbat neurri hartu ditu gai honetan. Arazoa ahal bezain laster eta behin betiko konpontzeko ahaleginean diharduela diote, plazaratu duten adierazpen honen bidez:

**Egunotan Usurbilen dabilen usain txarrari dagokionez:**
“Udalak badu gertakari horren berri eta behin betiko soluzionatzeko bi ildo ezberdinetan ari da lanean. Alde batetik, ke isurketak egitearen ardura daukan enpresarekin, eta, beste batetik, Eusko Jaurlaritzarekin.
-Legegintzaldi honetan hainbatetan bildu gara enpresako arduradunekin. Azken bilera ostiral honetan izan zen, problematika honi irtenbidea bilatu nahian.
-Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin harreman zuzena du eta izan du Udalak, eta bilera bat egiteko eskaera egina dago duela aste batzutatik.
-Udalaren eskaera jarraituen ostean, enpresak labe berria jarri behar izan zuen 2014ean, eta tarte honetan gure asmoa izan da labe zaharra behin betiko ixtea eta ke-erauzgailu berria jartzea. Negoziaketa luzeak izan ditugu beraiekin, bolada batean hitz onak ere bai, baina aurrerapausorik ez zegoela ikusita, elkarrizketak eten egin genituen duela aste batzuk. Behin eta berriz ari gara Eusko Jaurlaritza egoeraren larritasunaz ohartarazten, beren interbentzioa eskatzen eta gure inplikazioa eta laguntza eskaintzen. Bien bitartean enpresari hirigintza arloko zigor-espedientea irekitzea erabaki genuen ekainean. Espediente horrek bere bidea egiten jarraitzen du.
-Udala gaiarekin harremana daukaten eragile guztiei indar egiten ari da, aldaketak ahalik eta azkarren eman daitezen”.

## BBVA-k ez du Usurbilgo bulegoa itxiko

Herritar batek irailaren 8ko NOAUA!n argitara emandako “BBVA badoa Usurbildik” izeneko gutunari erantzunez, BBVA-k honako hau argitu nahi du. Batetik, ez duela Usurbilgo bulegoa itxiko eta orain arteko zerbitzuak eskaintzen segiko duela aurrerantzean ere. Pertsonalgoan egongo dela aldaketa bakarra urrian, baina horrek ez diela eragingo bezeroei.

## Ugartondoko etxebizitzetako eskaeren zerrendak ikusgai dira

Ugartondon eraikiko diren 46 etxebizitza tasatu eta babes ofizialeko 46 etxebizitzen, haien garaje eta trastelekuen esleipen prozesua aurrerabidean da. Uztailaren 27ra arte aurkezturiko eskaerak aztertu eta irailaren 11n dekretu bidez onartu ostean, argitara eman ditu Usurbilgo Udalak, onarturiko eta bazterturikoen behin behineko zerrendak. Irailaren 28ra arte ikusgai izango dituzue udaletxeko iragarki taulan, “interesatuek aztertu eta, beharrezkoa ikusten badute, ondoen deritzoten erreklamazioak aurkez ditzaten. Aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, zozketarako onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko da”.


46 etxebizitza tasatu eta babes ofizialeko beste 46 eraikiko dira Ugartondon.

# Azken urteetako sagar uztarik handiena

Herrialde guztietan sagar asko dago “eta 10 milioi kilotik gora batzea espero da”, halaxe azaldu du Euskal Sagardoa jatorri deiturak. 2017koa hortaz, azken urteetako uztarik emankorrena izango da.

Euskal Sagardoa jatorri deitura bigarren uztaren aurrean da, eta sektoreko teknikariek diotenez “historikoa” izango da kopuruan eta aurreratua heldutasunari dagokionean. Zenbait sagastitan hasiak dira lehenengo sagarrak biltzen, eta irailean eta urriko lehen asteetan biltzeko moduan izango dira sagarrik gehienak.

Euskal Sagardoa jatorri deiturak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagastiak eta sagardogileak biltzen ditu eta beraz, “tokiaren eta sagar moten arabera aldea izan liteke heldutasunean, baina orokorrean leku gehienetan dator uzta aurreratua aurreko urteekin alderatuta”, Euskal Sagardoa elkarteko kideek aditzera eman dutenez.

**10 milioi kilo**

Kopuruz, sagar asko dute sagarrondoek aurten eta azken asteetako euriek izugarri handitu dute alea. Hori dela eta aurreikusi liteke 10 milioi kilo baino gehiago izango direla aurten Euskal Herrian sagardo sagarrean.

Euskal Sagardora bideratutako sagarrak Kontseilu Arautzaileak zehaztutako kalitate baldintzak bete behar ditu eta sagastiek Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako Kontseilu Arautzailean izena emanda egon behar dute. Oraindik goizegi da Euskal Sagardoa jatorri deitura marka pean zenbat sagardo egingo den zehazteko, tolareak martxan baitaude.

Euskal Sagardoa markan Euskadiko sagargileen eta sagardogileen elkarte guztiek dute ordezkaritza eta hauxe dute helburu nagusitzat: euskal sagardoari eta Euskal Sagardoa egiteko sagarrari balio handiagoa ematea, sektore jasangarri bat indartu eta etorkizunerako oinarriak sendo jartzeko.



Uzta aurreratua dator azken urteekin alderatuta eta zenbait sagastietan hasiak dira sagarra biltzen.

*‘EUSKAL SAGARDOA’*

***“Kopuruz, sagar asko dute sagarrondoek aurten eta azken asteetako euriek izugarri handitu dute alea”***

**Euskal Sagardoa jatorri deitura landu duten elkarteak**

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagar eta sagardo elkarte guztiak ari dira parte hartzen jatorri deitura berriaren lanketan, sektorea %100 ordezkatuz: Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Sagardo Mahaia Elkartea, Bizkaiko Sagardogileen Elkartea, Sagar Uzta Elkartea, Arabako Sagarzale eta Sagardogileen Elkartea, Fruitel Sagarzale Elkartea eta Bialka Sagarzaleen Elkartea.

**115 sagar mota**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 115 sagar mota dira Euskal Sagardoa izendapenean onartutako sagar barietateak.

## Azken helburua: “Beharrezko den sagar guztia bertan sortzea”

2016ko uztan, hiru herrialdetako 200 hektareatik gora sagasti zeuden izen emanda eta 36 sagardotegik egin zuten jatorri-deiturako zigilua eraman ahal izango duen sagardoa. “2017an gehiago izango dira bai sagastiak eta baita sagardotegiak ere, datu zehatzak abenduan azalduko baditugu ere”, Euskal Sagardoa-tik aditzera eman dutenez.

Guztira, Euskal Sagardoa jatorri deiturara bideratuta 1.320.000 litro sagardo egin ziren 2016ko uztan, Euskadiko produkzioaren %12 inguru.

**Konpromisoa eta helburua**

Jatorri deiturara atxikitako sagargile eta sagardogileek konpromisoa hartu dute geroz eta bertako sagar gehiago erabiltzeko. Azken helburua, urte batzuen buruan, Euskal Herrian beharrezko den sagar guztia bertan sortzea litzateke.

**Identifikazioa**

Euskal Sagardoa botilak, sagarra duen kapsula edo lepoko sagarra du berme-zigilua; izan ere, horrek bermatzen du indarrean dagoen araudian zehaztutakoa betetzen duela.

# Hiru hilabete merkatuan

Euskal Sagardoak 2016koa izan du lehen uzta. Ekainaren 9an aurkeztu ziren lehen botilak jendaurrean. Guztira 1.320.000 litro egin ziren 2016ko uztan eta poliki-poliki sartzen ari da supermerkatu, denda, taberna, jatetxe eta bestelako salmenta puntuetan.

Datozen hilabeteetako helburua da kontsumitzaileari jakinaraztea zer den Euskal Sagardoa marka eta zer dagoen marka horren atzean: bertako baserrietako lanari bere balioa ematea, eta bertako sagardoaren balioa nabarmentzea. Estrategia horretan, Sagargileen elkarteak, Sagardogileen Elkarteak eta Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak elkarlanean ari dira, eta azken urteetako lanketa horren emaitza da jatorri deitura berria.



Euskal Sagardoak 2016koa izan du lehen uzta eta ekainaren 9an aurkeztu ziren lehen botilak jendaurrean.

### 2016an, 36 sagardogile

2016ko lehen uztan, 200 sagasti desberdinetako sagarra erabilita 36 sagardogilek egin zuten Euskal Sagardoa. 29 Gipuzkoan, 5 Bizkaian, 2 Araban.

*LEHEN UZTA*

***"2016ko lehen uztan, 200 sagasti ezberdinetako sagarra erabilita 36 sagardogilek egin zuten Euskal Sagardoa"***

### 2017an, 40tik gora

2017ko uztan sagargile eta sagardogile berriak sartuko dira jatorri deituran "eta abendurako datu zehatzen berri emateko moduan izango gara, baina, 40tik gora izango dira sagardogileak eta 250etik gora sagastiak".

### Lepoan sagar gorria duten botilak

Kontsumitzaileak merkatuan erraz identifika dezan, botila bakoitzak bere sagardotegiaren etiketa darama, baina Euskal Sagardoaren irudia izango du botilaren goikaldean, kapsula edo/eta lepoko sagar gorria.

# "Sagardotegi batzuk hasi dira muztioa elaboratzen"

Sagardoaren Lurraldeko sagardogile eta Fruitel-eko ordezkariek 2017ko sagardo sagarraren heldutasunaren txostena aurkeztu berri dute. "Iazko urtearekin alderatuta, sagarraren heldutasuna aurreratu egin da eta sagardotegiak dagoeneko sagarrak bildu eta muztioa elaboratzen hasiak dira", prentsa-ohar bidez jakinarazi digutenez. Horiek dira txosten horretan zehazten diren bi puntu garrantzitsuenak.

Bertako 14 sagar barietate aztertu ondoren, azukre maila iazkoaren berdina dela azpimarratu dute, almidoiaren erregresioak azken 5 urtetako mailarik altuena aurkezten duen bitartean. Sagardoaren Lurraldeako sagar eta sagardo ekoizleek uzta oparoa izango dela iragarri dute, ekoizpen askoko sagastiekin.

### Asteburu honetan, Sagar Uzta jaia Astigarragan

Uzta sasoiaren testuinguruan, Sagardoaren Lurraldeako ordezkariek 2017ko Sagar Uzta jaia antolatu dute.

Irailaren 21etik 24ra bitartean jarduera ezberdinak gauzatuko dira: tailerrak, ibilbideak, pintxo-pote berezia, sagar postre lehiaketa… Egun nagusia irailaren 24koa izango da. Astigarragako Foru enparantzan sagarraren azoka egingo da, sagar eta muztio dastaketa, bertako baserrietako produktuen salmenta eta abar.

### Denboraldiko lehen muztioa

Gainera, urtero bezala, denboraldiko lehen muztioa egingo da bertaraturiko guztien artean "topa herrikoia" egiteko.

## %100 tokikoa eta kalitatezkoa

Jatorri deitura duten sagardo-botila guztiek bi ezaugarri nagusi dituzte. "Alde batetik, Euskal Sagardoa %100 bertako sagarrez egindakoa da. Hori da, hain zuzen ere, jatorri deituraren helburu estrategikoetako bat: bertako sagarraren aldeko apustua sendotzea eta bultzatzea". Horretarako Euskal Herriko 115 sagar mota desberdin onartu direla diote jatorri izendapenaren arduradunek.

Bestetik, bigarren ezaugarria kalitatearekin lotuta dago. "Euskal Sagardoa jatorri deitura duten botila guztiek kalitate-bermea izango dute. Fraisoro Laborategian egiten dira kalitate frogak, bai fisiko-kimikoak eta bai organoleptikoak".

HAZI Fundazioak egiaztatuko du prozesu osoa, hasi sagastitik eta botilaren salmentara arte.

Kontsumitzaileak, beraz, Euskal Sagardoaren jatorri deitura duen botila bat erosten duenean, ezaugarri horiek biak bermatuak izango ditu: tokikoa eta kalitatezkoa.

Egitasmo honetan hasieratik parte hartu duten eragile guztiek nabarmendu dutenez, sektorea batu izana da Euskal Sagardoa jatorri deiturak lortu duen helburu nagusietako bat, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sagar eta sagardogileen elkarte guztiak, hiru herrialdeetako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza elkartu baitira jatorri deiturari bultzada emateko.



Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 115 sagar mota dira izendapenean onartutako sagar barietateak.

# Mingaina dantzan, euskaraz

Erabileran urrats handiak ematea ahalbidetzen die. Bidea gainera lagun artean egiten dute. Ate asko zabaltzen zaizkie, harremantzerakoan edo eguneroko bizimoduan, lanean, nahiz aisialdian. 2010. urtean Etumeta AEK euskaltegiak, Usurbilgo Udalarekin eta NOAUA! Kultur Elkartearekin elkarlanean abiatutako Min–tzalagun egitasmoari buruz ari gara.

Egun sei bat talde parte har–tzen dabiltza, baina gehiagorentzako lekua bada noski, bai euskaraz jakin edota ikasten ari direnentzat. Egitasmoak ez du etenik urtean zehar. Noiznahi eman dezakezue izena, Etumeta AEK euskaltegira gerturatuta.

"Ez da euskara ikasteko soilik. Praktikatzeko, erabileran pauso bat gehiago emateko baizik", Etumetatik aditzera eman digutenez. Euskara ikasten aritu nahiz jakin arren, maila hobetu nahi izan edota erdaraz hitz egiteko joera handiagoa izan dezaketenentzat aproposa da Mintzalagun. Dakienak ez du irakasle papera bete behar, laguntzailearena baizik. Ez dakienak ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango du.



Zortzi urte betetzera doa Mintzalagun egitasmoa.

*MINTZALAGUN*

***Astean ordubete kafe baten bueltan, paseotxo bat emanez... Euskara ahotan hartzea, horixe hartu beharreko konpromisoa***

Mintzalagunek ez du gutako bakoitzaren agendatik denbora askorik kentzen. Astean ordubete, kafe baten bueltan eguneroko bizimoduaz tertulian aritu, paseotxo bat eman, edota taldean sor daitekeen bestelako planen bat eginez, euskara ahotan hartzea, hortxe hartu beharreko konpromisoa. Bai bidelagunena zein bidaiarena, euskaldun "zahar" zein "berriena".

Zortzi urte betetzera doa Mintzalagun egitasmoa. Dagoeneko ekimenak egin duen ibilbidearen adierazleetako bat dugu euskaltegitik aipatu digutena. "Bada Mintzalagunen hasi eta orain lanean euskaraz dabilena", azpimarratu digute. Euskal Herria euskalduntzeko bide ezin garrantzitsuagoa dugu Mintzalagun. Ondo baino hobeto erakutsi digute ondoko herritarrok.

## "Erabiltzea da helburua"

Añorgan bizi da Ana de Bernardo. Hezkuntza berezian lan egiten du. Boga izeneko Internet bidezko metodoa baliatu zuen euskara ikasteko. Ez du euskal giroak ingura–tzen, eta ez zuen ikasitakoa ahazterik nahi. "Usurbilen giro euskaldunagoa izango zela pentsatu nuen", eta hala, udalerri honetan hasi zen euskararen mintzapraktikan bi herritarrekin, Joserra Vitorica eta Iñaki Aizpuruarekin.

**"Soltura hartu, lotsa galdu"**

Ikasturte bat daramate, astero biltzen, kafetegian mahai baten bueltan, gustura asko. Gramatikalki jasotako prestakuntzaren ostean, egun "nahiago dut hitz egin. Soltura hartu, lotsa galdu" dio Anak. Prozesu guztietan ohikoak diren gorabeherak izan dituela dio. Euskaltegietan ikasitakoa oso garrantzitsutzat jotzen du, baina kalean erabili ahal izatea da bere erronka. "Erabiltzea da helburua. Azkenean gure hizkuntza da", dio.

**Euskaraz dakigunon jarrera, giltzarri**

Sarritan jauzi handia suposatzen duen horretarako oso lagungarria deritzo Mintzalagun egitasmoa. Kalean euskara ahotan hartzeko euskaraz dakigunon jarrera giltzarri–tzat jotzen du. "Euskaldun zaharrek laguntzen digute. Erosketak egiterakoan, euskaraz hitz egiten jarraitzen dute. Niri horrek hobetzen laguntzen dit", nabarmen–tzen du Anak. Gogorarazi digunez, euskaraz dakigunok dugu haiek ezinbestekoa duten tresna. "Asko laguntzen digute, agian esfortzu handia egin behar dute. Baina onuragarria da haientzat ere", irizten dio Anak. Mintzalagunera animatzen ditu herritarrak, "ez alboratu euskara. Erabili".

# “Ondo edo gaizki, baina hitz egin”

Anak talde kide du Joserra Vitorica. Langabezian egonda, zuen denbora librea baliatu zuen Mintzalagunen hasteko. Euskara lehendik ikasia zuen, baina “erdi galdua” jada bere esanetan. Eta erabili egin nahi zuen, euskara ondo ulertzen baitu baina “asko kostatzen zait hitz egitea”. Horregatik hasi zen Mintzalagunen iazko ikasturtean. “Ondo edo gaizki, baina hitz egin” nahi zuelako, euskara erabili nahi duelako.

Iñaki eta Anarekin izaten duen asteroko lagun arteko solasaldien eragina nabari du jada. Hasieran urduri sentitzen zen “ia nola hitz egingo nuen”. Orain lasaiago aritzen dela, konfiantza handiagoz, adierazi digu. “Azarotik hona gehiago erabiltzen dut euskara jendearekin. Asko irabazi dut. Prozesu aberatsa izan da, jendaurrean euskaraz hitz egiteko animu handiagoa dut. Oso pozik nago”, adierazi digu Joserrak. Hobeto hitz egitea da bere helburua, gaizki hitz egiteak sortzen dion lotsa alboratzea. “Ia laguntzarekin hobeto hitz egitea lortzen dudan”. Ikasitakoa ingurukoekin partekatzen du jada.



Garrantzitsuena, “hizketan jardutea da. Lotsaren hesi hori haustea”.

*IÑAKI AIZPURUA*

***“Ez dago euskara txarrik. Euskara txarra hitz egiten ez dena da”***

**“Bi aldeek ikasten dute”**
Taldeko bidelaguna edo euskaldun “zaharra” dugu Iñaki Aizpurua. Euskararen erabileraren sustapena praktikara eramatea ahalbidetzen duten bi esperientziatan murgildua dabil usurbildarra. Batetik, Mintzanet egitasmoan. Skype bidez, Durango eta Sopelako lagun banarekin aritu da azken urtean mintzapraktikan. Aurrez adosten dute hitzordua eta sarea baliatzen dute komunikatzeko.

Bakoitzarekin ordubete aritzen da. Eta gero Mintzalaguneko hitzordua izaten du astero Ana eta Joserrarekin. Kasu honetan gaiak naturalago sortzen direla dio, eta errazagoa dela bi lagunekin aritzea, batekin baino. Baina garrantzitsuena, “hizketan jardutea da” nabarmentzen du, euskaraz aritzea, eta ikusezina izan arren, hor dagoen lotsaren edo beldurren “hesi hori haustea. Nik uste, horretan izan behar dugu lagungarri”. Prozesu hori naturaltasunez lantzeko beharra nabarmentzen du. “Ez dago euskara txarrik. Euskara txarra hitz egiten ez dena da”, gogorarazten du Iñakik.

Aberasgarritzat jotzen duen esperientzia honetan parte hartzera animatzen du. “Bi aldeek ikasten dute”, gogorarazten du. Eman baino jaso egiten dela nabarmentzen du. “Azkenean beste pertsona bat integratzen dugu hizkuntza komunitatean”, lagun berriak egitearekin batera. Honako erronka hau betetzea ahalbidetzen duela dio gainera: “Denok kontziente bagara hizkuntza batek egiten duela herria, komunikatzeko balio duela eta gure agertzeko modua gure hizkuntza bada guk hala ulertzen dugulako, bestea horren parte egitea”.

# “Oso berritsua naiz erdaraz, euskaraz ere hala izan nahi dut”

Ana, Joserra eta Iñakiren antzera dabiltza Maria Jesus del Pico eta Kristina Palomero ere. Kristina Artzabal jatetxean ari da lanean. Donostiarra da bera eta dioenez Usurbilen bakarrik aritzen da euskaraz. Lanean euskara zuzen erabiltzen ikasi nahi du. “Mugatua nago. Bezeroekin hitz egiterakoan gauza asko galtzen dut”, dio. Argi du aurrera begirako erronka. “Nire lantokian, jatetxean jendearekin hitz egin nahi dut. Oso berritsua naiz baina erdaraz, euskaraz ere hala izan nahi dut”, dio.

Kosta arren, euskaraz aritzeko ahalegin betean dabil. “Gutxi aurreratu dut, baina pixkanaka hobetzen noa”, dio. Artzabalen lanean hasi eta gutxira hasi zen Mintzalagunen parte hartzen, uda aurretik. Bidelaguna du Maria Jesus del Pico herritarra. Oso gustura dabil, eta nabarmentzen duenez, “Mintzalagunek askorako balio du”.

Iritzi berekoa da Maria Jesus ere eta oso ondo ezagutu eta ulertzen du Kristinaren errealitatea. Ikusi bestela bere burua nola aurkeztu digun. “Aspaldiko euskaldun berria naiz”, adierazi dio NOAUA!ri.

Euskararen erabileraren alde zerbait egin nahiak erakarri du Mintzalagun egitasmora. Beretzat euskara ikasi eta beste norbait ikasten laguntzea helburu bat eta bera da. “Euskal hiztunak geroz eta gehiago badira, normalizazioa hurbilago dago”. Eta horixe da hain zuzen bere helburua, bai euskara ikasi zuenean, eta baita orain euskara ikasten laguntzen ari den honetan ere.

## Euskaldun zaharrentzako mezua

Bera bezala, euskaldun “zaharrak” animatzen ditu Mintzalagunen parte hartzera. “Egongo dira asko euskara oso ondo dakitenak eta Mintzalagun izateko alfabetatuak egon behar direla edo norbaiti euskara ikasten laguntzeko balio ez dutela pentsatzen dutenak. Baina euskara jatorra haiek dute. Haiei esker dugu herriko euskara. Euskararen alde zerbait egin nahi badute, Mintzalagun izateko oso gai dira”, adierazi du Del Picok.

# Erraustegiko lanen 2. fasea, tramitazio betean

Erraustegiko lanen bigarren fasearen tramitazioan urrats berri bat eman du, oraingoan Eusko Jaurlaritzak. Biometanizazio planta eta zepak tratatzeko beste azpiegitura bat eraiki–tzeko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eskatutako ingurumen baimen bateratua eskuratzeko dokumentazioa jendaurrean jarri du ikusgai. Irailaren 14tik zenbatzen hasita, alegazioak aurkezteko 30 eguneko epea finkatu dute.


**Irailaren 14tik zenbatzen hasita, alegazioak aurkezteko 30 eguneko epea finkatu dute.**

**Dokumentazioa bideotatik kontsulta dezakezue:**

■ Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendari–tzan: Donostia kalea 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz.

■ Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Gipuzkoako Lurralde Zerbi–tzuan: Intxaurrondo, 70, Donostia.

■ Donostiako Udalean.

■ Helbide honetan: euskadi.eus (dokumentazioa nagusiki erdara hutsean).

*HONDAKINEN KONTSORTZIOA*

***"Biometanizazio planta eta zepak tratatzeko beste azpiegitura bat eraikitzeko prozesua abiarazi dute"***

**Bigarren faseaz erabakitakoa ere, alegazio epean**

Gipuzkoako Hondakinen Kon–tsortzioko (GHK) administrazio kontseiluak uztaila amaieran onartutako bigarren fase honetako aurreproiektua eta bideragarritasun-plana berre–tsi zituen asanbladak irailaren 5ean.

Irailaren 8az geroztik alegazioak aurkezteko 30 eguneko epea egongo da erakundeko egoitzako erregistroan: astelehenetik ostiralera, 8:30-14:30 artean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren (GHK) Hernaniko egoitzan: Ibaiondo poligonoa 27-3.

# Uda amaitzearekin bat, langabeziak gorantz

Udaberri amaieratik langabeziak beherantz egin ostean (maiatzean 271 langabetu, uztailean 234), udako opor hilabeteak amaitzearekin bat, 257–raino igo da Usurbilgo langabetu kopurua.

98tik 119raino gizonezkoen artean, 136tik 138ra emakumezkoen artean.

**Buruntzaldean eta Gipuzkoan, antzeko joera**

Usurbilen bezala, Buruntzaldea osoan (185 langabetu gehiago) eta Gipuzkoan ere (977 langabetu gehiago) gehitu da lanik gabeko herritar kopurua.

Kontratazioak nabarmen egin du behera abuztuan; 566tik 375era murriztu zen Usurbilen erregistraturiko lan kontratu kopurua.

**Kontratazioetan, emakumeak gutxiengo**

Ohi bezala, ia denak 375etik 366 aldi baterako hitzartu ziren. Gizonezko gehiago (215) kontratatu ziren, emakumezkoak (160) baino.

## Ikastaroak Santuenean

■ Yoga: irailaren 19tik aurrera astearteetan (16:00-17:30/18:30-20:00/20:30-22:00) eta ostegunetan (16:00-17:30/20:30-22:00).

■ Reiki: irailaren 20tik aurrera asteazkenetan, 17:00-20:00 artean.

Izen ematea: 619 791 170, abelinamanso@gmail.com

■ Tai chi ikastaroari buruzko informazioa jasotzeko bilera. Irailaren 22an, 17:00etan Santuenea 12 behea, udal eraikinean.

## Ahalduntze ikastaro berriak emakumeentzat

Bi ikastaro berri iragarri ditu Usurbilgo Udalak, udazken honetarako:

■ "Doluak eta galerak, orrialdeak ixten, etapak irekitzen". Ikastaroa erdaraz, Pepa Bojo psikologoarekin. Urriaren 5etik abenduaren 14ra, 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegiaren atzealdeko lokalean. Izen ematea, urriaren 3ra arte: Udaleko Parekidetasun Saila parekidetasuna@usurbil.eus 943 377 110.

■ "Zertaz egiten dugu barre emakumeok?". Saioak: azaroak 7, 14, 21, 28. Ordutegia: 17:30-19:30, Potxoenean. Irakaslea: Beatriz Egizabal. Xehetasun gehiago, aurrerago eskainiko ditu Udalak.

## Udal zerga ordenantza

Usurbilgo Udalaren ekainaren 27ko eta uztailaren 26ko azken osoko bilkuretan onartutako zerga ordenantzako azken aldaketak erreklamazio epean izan dira. Inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onartutzat jo ditu Udalak.

# Jauzi Antzerki Egunak, iruditan



Kale ekintza musikatuarekin abiatu zen Jauzi Antzerki Egunen asteburua.



Ostegunean, antzezlan saio txikiak eskaini zituzten herriko txoko ezberdinetan.

# Zirkuko jolasak ezagutzeko aukera









Zirkuko akrobazia, oreka eta teknika gertutik ezagutzeko aukera izan zuten larunbat goizeko ekintzan.

# Festa giroa nagusi izan da

















# Santuenean

















# Kataluniarekin bat




**Bilbora abiatu aurretik ondoko talde argazkia atera zuten, ikurriña eta estelada artean.**

Milaka herritarrek elkartasun besarkada erraldoia eman zioten irailaren 16an Bilbon, Kataluniako herriari, urriaren 1eko erreferenduma eta katalan zein euskaldunon erabakitze eskubidea babesteko Gure Esku Dago mugimenduak deitutako mobilizazioan.

Tartean ziren noski, bazkalostean Oiardo Kiroldegitik Bilborantz autobusez joandako usurbildarrak ere. Abiatu aurretik ondoko talde argazkia atera zuten, ikurriña eta estelada artean. Pankartak dioen moduan, usurbildarrek ere "Kataluniarekin bat" egin zuten.

**"Guk ere egingo genuke"**

Fiskaltzak deklaratzera deitutako 700etik gora alkate katalanei elkartasuna adierazi diote EHBilduko 40 alkateek, tartean Usurbilgoak, Xabier Arregik. Aurreko astean eginiko agerraldian, katalanen erabakitzeko eskubidea defendatu, Euskal Herrirako autodeterminazio prozesuarekin konprometitu eta estatu espainiarraren errepresioa salatu zuten.

# Irailaren 27an, Gizarte politikako foru diputatuaren bisita

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika diputatu Maite Peña Usurbila dator irailaren 27an. Udaletxean harrera egingo diote lehenik, eta segidan, "Usurbilgo jubilatuen errealitatea zein den ezagutzeko aukera izango du udal ordezkari eta teknikariekin egingo duen ibilaldian".




**Maite Peña da Foru Aldundiko Gizarte Politikako diputatua.**

Puntapaxeko Eguneko Zentroa eta Artzabal bisitatuko dituzte. Bi guneon bueltan sortu diren eskaerak helaraziko zaizkio foru diputatuari, Eguneko Zentroko asteburuko plaza kopurua handitzea eskatua baitio Udalak. Herriko jubilatuek bestalde, Zahar Egoitza bat izatearen alde azken hilabeteotan bildutako sinaduren emaitzak aurkeztuko dizkiote Peñari bilera batean.

**Esperientzia Eskola irekitzear**

55 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko doako hezkuntza eskaintzan izen emateko aukera dute interesdunek 943 377 110 telefono zenbakira deituta edo Gizarte Zerbitzuen egoitzan.

## Bertso eskola berpizteko izen ematea

Usurbilen berriz ere bertso eskola abiatzeko asmoa dago. 9 urtetik gorako gaztetxo nahiz helduentzako saioak eskaini asmo dituzte astearte arratsaldeetan: 18:00-19:00 artean gaztetxoenak, 19:00-20:00 artean helduenak. Urteko kuota: 20 euro. Izen emateko eguna finkatu dute, irailaren 26an 19:00etan Sutegi atarian. Bertaratu ezin baduzue, inskripzioa bideratu eta argibide gehiago jasotzeko botapunttubabertsoeskola@gmail.com helbidera idatzi dezakezue. Bota Punttuba bertso eskolan parte hartzeko gonbita, bertsotan luzatu dute:

*Hitzei forma emanez*
*nork bere erara*
*gozatzeko aukera*
*Usurbilen bada*
*hitz-joko ta txisteen*
*zalea bazara*
*animatu ta zatoz*
*Bertso eskolara!!*

## Udalerri euskaldunetako gazte topaketak

UEMAk antolatu du eta 15-18 urte arteko gazteei zuzenduta egongo da. Urriaren 20tik 22ra, Orioko Itxaspe baserrian. Hondartzara txangoa, kantaldiak eta kontzertuak terrazan, jolasak, solasak, bisita sorpresak… eskaintza zabala izango da. "Gazteak euskal hiztun gisa sentsibilizatu, kontzientziatu, aktibatu eta ahalduntzeko. Euskaraz bizitzea eta euskararen arnasa zabaltzeko agente bilakatzea sustatu nahi da". Izen ematea (urriaren 9ra arte) eta argibide gehiago: 943 816 699, uema.eus, hezkuntza@uema.eus, UEMA Enparan kalea 1, 2a, 20730 Azpeitia, Gipuzkoa. Prezioa: 30 euro.

# Akordioa Ingemarren




ELAren esanetan, "presio sindikal eta juridikoaren ondorioz, negoziazio-bide berriak urratu ziren, eta azkenean akordioa lortu da".

Ingemarren akordioa erdietsi dutela berri eman du ELA sindikatuak ohar bidez. Honenbestez, enpresako zuzendaritzak Usurbilgo lantegia ez du itxiko, nahiz bertan lan egingo dutenen kopurua jaitsiko den. 34 lanpostu mantenduko ditu Ingemarrek, orain artekoaren erdia.

"Akordioaren arabera plantillako erdiari baja pizgarridunak, ez-traumatikoak, emango zaizkio (30 egun lan egindako urte bakoitzeko), eta pertsonaleko gainerakoentzat, lan-baldintzak aldatu gabe, industria-proiektu bat geratuko da, makinerian eta produktuan egin beharreko inbertsioak zehazturik utzita", berri eman du ELA sindikatuak.

**Akordioaren oinarri nagusiak**

Akordioak bi helburu ditu aipatu sindikatuaren esanetan, "industria-proiektu bat finka–tzea eta kaleratze traumatikorik ez gertatzea". Urrats berri hau eman den arren, hemen ez da amaitzen orain arte bideratu duten borroka. "Usurbilen enplegu gehiago sortzeko industria-proiektu baten aldeko borroka ez da bukatu", ohartarazi dute ELA-tik.

ADOSTUTAKOA

***Plantilla erdiari baja pizgarridunak emango zaizkio eta gainerakoentzat industria-proiektu bat geratuko da***

Urte luzez borrokatu dira Ingemarreko langileak, Usurbilgo planta ixtearen aurka, eta haien lan baldintza eta lanpostuen alde. Gogoan izan, hartzekodunen lehiaketan zen Ingemar. Ekainean zuzendaritzak lan talde osoa, 70 langile kaleratzeko EEE bat aurkeztu zuen. "Kontsulta-aldia akordiorik gabe amaitu zen. Hala ere, eta presio sindikal eta juridikoaren ondorioz, negoziazio-bide berriak urratu ziren, eta azkenean akordioa lortu da", berri eman du ELA sindikatuak.



## Irailaren 28an, guraso-bilera Gaztelekuan

Ikasturte honetan Gaztelekuan parte hartzen hasiko diren DBH1eko gazteen gurasoei zuzenduta dago bilera. Irailaren 28an osteguna, arratsaldeko 18:00etan. Gaztelekuaren funtzionamendua azalduko zaie.

## Hasi da ikasturtea EPA Usurbil HHI eskolan

2017/2018 ikasturtea astelehen honetan hasi da.

■ Matrikula orduak:
Goizez, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:00etara.
Arratsaldez, astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 19:00etara.

■ 943 36 12 73.
012734aa@hezkuntza.net

# Beka batekin Kabienen urtebetez aritzeko aukera

■ Bekaren zenbatekoa: gehiengo zenbatekoa 12 hilabeteko egonaldia izanez gero 1.089,00 eurokoa.

■ Onuradunen betebeharrak: Adinez nagusia izatea; Beterri-Buruntza eskualdeko udalerritakoren batean (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) erroldatua egotea; Usurbilgo Udalarekiko zerga-betebeharrak beteta edukitzea; Usurbilgo Udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena garatzen ari izatea; Ekonomi Jardueraren gaineko Zergan alta emanda ez egotea edo gehienez ere 2017. urtean alta eman dutenak, eta norberaren kabuz ekonomia jarduera bat gauzatzen ez aritzea. Garatzen ari diren proiektuak baino ezingo dira aurkeztu, deialdiaren helburua ekintzaileen ekimen berriak definitzen eta abiarazten laguntzea baita.

■ Irailaren 30ean amaituko da bekara aurkezteko epea.

Bekadunak bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango du eta harreman-sare indartsuago batekin ekin ahal izango dio lanari. Beterri-ekinean zerbi–tzutik tutorizazio bat emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkio, horrela badagokio.






# Jai giroa badator Aginagarantz

Santueneko jaien "ajea" pasa berritan, ate joka ditugu inguruotako jaietan azkenak; Aginagako San Praixkuak. Aurten irailaren 29tik urriaren 7ra ospatuko dira. Berrikuntzekin, eta jada klasikoak ditugun beste hainbat ekitaldirekin. Tartean bada aginagarrak mahai baten biltzen dituen herri afaria. Oraingoan, irailaren 30ean ospatuko dute. Txartelak aurrez eskuratu ahalko dituzue Aitzagan eta Aginagako Arraten. Helduenak 25 eurotan, haurrenak 12 eurotan. Aginagako jaiei buruz luze zabal arituko gara, astebete barruko NOAUA!n.



**Irailaren 30ean ospatuko dute oilasko biltzaileen eguna.**

# Irailaren 29an hasi eta urriaren 7an amaitu

### Irailak 29, ostirala: Gora Herria Eguna

■ 18:00 Iazko jaietako argazki erakusketa.
■ 18:30 Txupinazoa txanpainarekin.
■ Jarraian, preso ohien mural borratzea.
■ 19:30 Patata tortilla lehiaketa.
■ Ondoren, tortilla afaria, lehiaketaren aitzakian.
■ 21:30 XV. Gizonezkoen palazko pilota finala eta XV. Gizonezkoen eskuzko pilota finala.

### Irailak 30, larunbata: Oilasko Biltzaileen Eguna

■ 05:30 Oilasko biltzaileen gosaria, suziriak bezala abiatzeko.
■ 06:00 Oilasko biltzaileen irteera.
■ 11:30 Herriko haurrak eta animatzen direnak oilasko biltzaileekin batuko dira Mapilen.
■ 14:30 Oilasko biltzaileen bazkaria Sekañan.
■ 17:00 Haurren Molto Moto lasterketa, motorzaleena dirudiena garaile!
■ 18:00 Haurrentzako karaokea: AgiñaBision.
■ 19:00 Kantujira Usurbilgo lagunekin. Bitartean, buruhandi bizi-biziak!
■ 21:00 Herri afaria.
■ 00:30 Txosnen irekiera.
■ 01:00 Erromeria frontoian: Oharkabe.
■ 04:00 Eliza Zaharrean: Seymar Dj.

### Urriak 1, igandea: "Referendum de Independencia"

■ 07:00 Baratxuri zopa jana Atarialde Elkartean.
■ 09:00 Tiroplatoa.
■ 12:30 Aginagako haur dantzari taldearen ikuskizuna.
■ 17:00 Haurren pilota txapelketa herrikoia, frontoi txikian!
■ 18:30 Orbeldi dantza taldearen eskutik, dantza ikuskizun zoragarria frontoian.
■ Ondoren, piper frijitu eta sagardo banaketa herriko plazan.

### Urriak 4, asteazkena: San Praixku Eguna

■ 11:00 Meza nagusiaren ondoren, jubilatuen hamaiketakoa eta bertsolariak Aginaga Sagardotegian.
■ 18:00 Herritarren arteko herri kirolak, gazteak helduen kontra!
■ 18:30 Sardina eta sagardo dastaketa musikaz alaituta.
■ Bitartean, XXXV. Topa Txapelketa herrikoia.

### Urriak 6, ostirala: Umeen Eguna eta Gazteen Gaua

■ 10:00 Jolasak frontoian.
■ 13:00 Bazkari goxo-goxoa Eliza Zaharrean.
■ 16:00-18:00 Tailerrak eta Puzgarriak frontoian Txatxilipurdikoekin.
■ Segidan, txokolate goxo-goxoa.
■ 18:30-19:30 Disko festa, hasi ipurdiak mugitzen.
■ 19:30 Apar festa plazan.
■ 21:00 Gazte afaria Aginaga Sagardotegian.
■ 00:00 Txosnen irekiera.
■ 01:00 Kontzertuak Eliza Zaharrean: Rukula eta Eskean Kristö.
■ Ondoren, Karaokea.
■ Segituan, euria goitik behera.

### Urriak 7, larunbata: Gaupasa Eguna

■ 16:00 XXXVI. Mus Txapelketa Herrikoia Atarialde Elkartean (izen ematea, 15:30-16:00 artean).
■ 17:00 Txosnen irekiera.
■ 17:30 Kontzertuak Eliza Zaharrean: Kezka, The Hastelen´s.
■ 18:00 Gorriti.
■ 19:30 Poteoa Elektro Txufla elektrotxarangarekin.
■ 00:30 Kontzertuak frontoian: Odolaren Mintzoa eta Laket.
■ 04:00 Eliza zaharrean Jotatxo DJ eta plazako karpan Balber DJ. Berehala egunak argitu duela? Guri bost!

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Antolatzaileen oharrak: Aginagako Jai Batzordea ez da arduratzen egun hauetan gerta daitezkeen istripuetaz. Usurbilgo Udalak babesturiko festak direnez, ardura zibilaren aseguru poliza ere Udalak bereganatzen du.

# Aldaketak Kantu Taldean

Irailaren 12an ekin zioten uda osteko jardunari Kantu Taldekoek. Lehen entsegu saio hartan, ikastaroko hitzorduaren ordutegia, eguna eta biltzeko tokia aldatzea erabaki zuten. Aste honetatik aurrera, astelehenetan elkartuko dira, orain arte baino ordu erdi lehenago abiatu eta amaituko dituzte entsegu saioak (18:00-19:00), eta aurrerantzean, HH-LHko eraikinean, Agerialdeko musika gelan bilduko dira kantu zaleak.




**Aurrerantzean, entseguak astelehenetan egingo dituzte arratsaldeko 18:00etan hasita.**

Orain arte baliatzen zuten gunea, Zumarte Musika Eskolaren txokoa izango baita aurrerantzean.

Bestalde, iraila amaierarako deitu dute udako etenaldi osteko lehen kantu jira. Honatx xehetasunak:

**Entseguak, astelehenero**

■ 18:00-19:00 Kantu Taldekoen entsegu saioak, Agerialdeko musika gelan.

**Irailak 30, larunbata**

■ 19:00 Udako opor osteko lehen kantu-jira, Mikel Laboa plazatik.

■ Nori zuzendua: herritar orok parte har dezake. “Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera”.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

# Bi herritar, Bertsolari Txapelketa Nagusiko antolakuntzan

Asteburuan abiatuko da Euskal Herri osora hedatuko den Bertsolari Txapelketa Nagusia. 43 bertsolari lehiatuko dira, 18 gai jartzaileren esanetara jardun beharko dute eta 20 epaile izango dira iragarri diren saio guztiak baloratzen.





**Jurgi Fuentes epaimahaikide gisa eta Inazio Usarralde gai jartzaile gisa arituko dira.**

**Bi herritar txapelketan**

Txapelketa honetan gutxienik bi herritarrek parte hartuko dutela badakigu. Ez bertsolari gisa, baina bai antolaketa lanetan. Epaimahaikideen artean izango da Jurgi Fuentes, sortzez mungiarra, egun Usurbilen bizi da. Inazio Usarralde aginagarrak lehen finalaurreko saioa aurkeztuko du bestalde. Gai jartzaile lanetan arituko da urriaren 28an Bastidan. Txapelketak badu Usurbilekiko beste lotura bat ere. Antolakuntzak jakinarazi duenez, Bertsozale Elkarteak finalerako autobus zerbitzua Aizpurua Autobusak enpresakoen bidez eskainiko du.

**Txapelketa hastear**

Hasiera: irailaren 23an Baigorrin.

Amaiera: abenduaren 17an, Barakaldoko BEC-en.

**Informazio gehiago:**

bertsozale.eus

## Azaroaren 1eko Artisautza Azokari begirako deialdia

Aitzaga Elkartea azaroaren lehenean ospatuko den 22. Artisautza Azoka antolatzeko prestaketa lan betean da jada. Azokan parte hartu nahi duten artisauei postua jartzeko deialdia luzatu diete. Interesdunek, urriaren 6ra arteko epea dute izen emateko, artisautzaazoka@gmail.com helbidera email bat idatzita. “Artisautza lantzen duen adierazlea duen agiria kontuan izango da”, ohartarazi du antolakuntzak. Gaineratu dutenez, “antolatzailea ez da arduratuko bertan gerta daitezkeen ezbeharretaz”.

**Parte hartzeko arauak**

Hona hemen, 22. Artisautza Azokan parte hartzeko artisauek bete beharko dituzten arauak:

■ Artisautza lantzea eskatzen da eta lehentasuna izango du.

■ Postuetan euskarak bere presentzia izatea eskatzen da.

■ Gehienez bi mahairentzako lekua izango da postu bakoitzean.

■ Dieta eta hamaiketakoa egongo da (postuan daudenentzat).

■ Postu bat baino gehiago jartzen duenak dieta bakarra jasoko du.

■ Antolatzaileek eskumena izango dute postuak aukeratzeko.



**Azokan parte hartu nahi duten artisauek urriaren 6a baino lehen eman behar dute izena.**

# Hamargarrena ere, edizio borobila

Ateri eutsi zion eta giro ederrean ospatu zen Baxurde Txiki U.T.T.-k antolaturiko Baxurde Krossaren hamargarren edizioa, irailaren 17an. Kamel Ziani El Katumi nagusitu zen gizonezkoetan. Emakumezkoetan helmuga zapaltzen lehena, Lourdes Colomo zizurkildarra izan zen. Gizonezko zein emakumezkoen lehen hiru postuetan, usurbildar bakarra sailkatu da aurtengoan; iazko txapelduna, Iñaki Gerica herritarra.



Argazkian, 10,75 kilometroko bidea osatu zuten lasterkarien artean denbora onena egin zuen kirolari taldea.

## Bi ibilbide

Gogoan izan ordea; bi ziren, Baxurde Txiki U.T.T.-k antolaturiko krossean aukeran zeuden ibilbideak. 5,2 kilometrokoa egin eta azkarren amaitu zutenen lehen hiru gizonezko eta emakumezkoen artean bai, bi usurbildar ditugu; Oinatz Iparragirre eta Aroa Arruti. Oro har, bi kro–ssetan guztira 42 herritarrek parte hartu dute aurten. Haietako batek baino gehiago opari eder askoak eskutan zituztela etxeratu ziren:

### 10,75 km

**Parte hartzaileak guztira: 201.**

**Lehen hiru gizonezkoak:**
1- Kamel Ziani El Katumi 00:34:38
2- Carles Montllor Vegas 00:34:47
3- Iñaki Gerica Juan (Usurbil) 00:35:23

**Lehen hiru emakumezkoak:**
55- Lourdes Colomo Artola 00:43:22
64- Oihana Esponja Perez 00:44:28
66- Itziar Barrenetxea Crespo 00:44:35

### 5,2 km

**Parte hartzaileak guztira: 15.**

**Lehen hiru gizonezkoak:**
1- Ibai Beracierto Espada 00:19:06
2- Mikel Alonso Cuende 00:19:43
4- Oinatz Iparragirre Arregi (Usurbil) 00:23:59

**Lehen hiru emakumezkoak:**
3- Amaia Lacalle Prieto 00:23:26
7- Aroa Arruti Castresana (Usurbil) 00:27:55
10- Josune Cruz Oyarzabal 00:28:40

## Enique Abril Errebote Txapelketa

Irailaren 17an Luzean taldekoen aurka jokatutako neurketa 3-13 galdu zuten zubietarrek.

**Irailak 24 igandea**
**Zubietako plazan, 11:00**
Behar Zana-Zubieta.

## Eskubaloia Kiroldegian

**Irailak 23, larunbata**
■ 15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Urdaibai
■ 17:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Urdaibai
■ 19:30 Senior mutilak, 1. nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Eibar Eskubaloia.

## Aginagako Pilota Txapelketa, final laurdenak

**Irailak 21, osteguna. 21:00**
Exposito-Aizpuru/
Loidi-Santxez

Santxo-Aranguren/
Apezetxea-Aizpitarte

# Usurbildarrak 10. Baxurde Krossean

**5,2 km (7 partaide):**
4- Oinatz Iparragirre Arregi 00:23:59
6- Aritz Martin Lizaso 00:27:55
7- Aroa Arruti Castresana 00:27:55
8- Iñaki Errekondo Salsamendi 00:27:56
11- Lara Montes Guerra 00:30:55
12- Saioa Sarasola Miguel 00:30:55
14- Leire Lizarralde 00:33:33

**10,75 km (35 partaide):**
3- Iñaki Gerica Juan 00:35:23
23- Eneko Portu Irasuegi 00:39:46
62- Floren Lantz 00:44:12
63- Xabier Izeta Aramendi 00:44:16
67- Rosa Uribe Navarro 00:44:49
86- Guiller Rueda Etxeberria 00:46:48
89- Arturo Rojas Pedrini 00:47:31
94- Gerardo Armendariz 00:48:10
97- Xabier Carbayeda 00:48:25
103- Jokin Rezola Mendikute 00:49:03
105- Jon Arriaga Lertxundi 00:49:06




Bi lasterketetan 42 herritar aritu ziren korrika. Irudi gehiago: www.noaua.eus

106- Ander Orena Irureta 00:49:13
108- Jokin Zubiaur Blasco 00:49:25
116- Aitor Jauregi Urdampileta 00:49:46
125- Axier Dominguez Prieto 00:50:27
128- Garazi Artola Balda 00:50:49
135- Iñaki Etxebarria Orbegozo 00:51:05
143- Joxemari Portu Azpiroz 00:52:03
149- Axi Portu 00:52:39
157- Julen Lazkano 00:54:19
158- Ander Jauregi Urdanpilleta 00:54:23
160- Aitor Agirre Zapirain 00:54:42
161- Jon Mikel Zabala 00:54:49
162- Pablo Roura Martinez 00:55:12
163- Izadi Azkonobieta Etxabe 00:55:44
168- Oroitz Altuna Ibarguren 00:55:58
171- Eneritz Agirre Urdangarin 00:56:42
176- Javier Martinez Manso 00:57:21
179- Jon Guembe Urra 00:57:36
181- Gaizka Zumeta 00:57:41
184- Joseba Bengoetxea 00:58:25
185- Salbatore Arruti 00:58:25
189- Maider Elizasu Lasa 00:59:26
190- Kerman Bruño 00:59:31
192- Maximo Garcia Sanchez 00:59:49

Sailkapen osoa ikusgai: kirolprobak.com

# Usurbil Cup-en 6. jardunaldia

Jardunaldi bat bestearen atzetik jokatzen dabiltza egunotan. Astetartean, jokatu da bosgarrena. Asteburu honetan, lehen faseko seigarren eta azken jardunaldia. Irailaren 30ean finalerdiak jokatuko dira goizez, 09:30-13:40 artean Haranen. Eta urriaren 7an, final egun handia frontoian, sariketa, bazkari eta ospakizun gehiagorekin.

## Irailak 22 ostirala

**Haranen:**

**Minibenjaminak**

16:30 Kaffa-Txirinbolo.
16:30 N.I. Ileapaindegia-Itzira.
16:55 Icoman-
Itzira Eraikuntzak.
16:55 Txirinbolo-Otar Goxo.
17:20 Otar Goxo-
N.I. Ileapaindegia.
17:20 Kaffa-Icoman.

**LH 4, 5, 6 neskak**

16:30 Txiriboga Taberna-
Aratz Erretegia.
17:20 Aitzaga-Izarrak.
18:10 Marije-Maiur.



**Irailaren 30ean finalerdiak jokatuko dira goizez, 09:30-13:40 artean Haranen.**

**Infantil neskak**

17:50 Goieko-Saizar.
18:40 Lurda Purtxileria-I.P. Foto
Atsedena: Josue Igeltseritza.

## Irailak 23 larunbata

**Haranen:**

**LH 3, 4**

10:00 Suzko Taldea-
Esnaola Janaridenda.
10:50 Urtxintxak-Tximista.
11:40 Futbolari Basatiak-
Usurbil Sport.

**Alebin mutilak**

10:00 Mur-Bugati Erretegia.
10:50 Artzabal-Opil Goxo.
11:40 Aizpurua Okindegia-
Lagun Onenak.

**Infantil mutilak**

12:30 Laurok-Perkuak.
12:30 Errazkin Bizikletak-
Goieko.
Atsedena: Josue Igeltseritza.

Antolatzailea: Usurbil F.T.

## Irailaren 22an eta 23an, izen ematea Futbol Eskolan

2007, 2008 eta 2009an jaiotako umeek Usurbil F.T.-ren Futbol Eskolan parte har dezakete. Horretarako izena eman beharra dago egunotan: irailaren 22an (ostirala), 17:00-19:00 artean eta irailaren 23an (larunbata) 10:30-12:30 artean, futbol taldekoek Harane zelaian duten bulegoan.

# Ate irekien astea Kiroldegian

Aquagym, eskalada eta patinaje ikastaro berriak antolatu ditu Oiardo Kiroldegiak. Baina 2017-18 denboraldirako eskaintza zabalagoa da.

Zumba, 3. adina, jumpfit, Body Balance, pilates, spining, mantentze gimnasia, yoga, hipopresibo ikastaroak antolatu dituzte, igeriketako jarduerokin batera; haurrentzako igeriketa ikastaroak, helduentzako hastapen, hobekuntza edo ikastaro gidatuak, triatloiko igeriketa, haurdunen igeriketa... Bada non aukeratua. Informazio gehiago eta izen emateko: Oiardon edo 943 372 498 telefono zenbakian.

**Ate irekiak**

Zenbait ikastaro abiatu aurretik, proba egiteko aukera eskainiko dute egunotan Oiardon:

■ Irailak 21: 19:00 Yoga mindfulness.
■ Irailak 22: 17:45 Jump Gazte.

## Urriaren 8an, Andatzakoekin batera Anbotora joateko aukera

Andatza M.K.T.-k zabalik du urrirako antolatu duen txangorako izen ematea:

■ Eguna: urriak 8, igandea.
■ Ibilbidea: 14,5 km. "Mendi ibilaldia Arrasateko Gesalibar auzoan abiatuko da, eta Anboto mendira igo ondoren Urkiolan amaituko da".
■ Abiatzeko hitzordua: 07:30ean autobusez, Oiardo Kiroldegitik.
■ Izen ematea: 10 euroko ordainketa egin beharko da urriaren 4a baino lehen, kontu zenbakiotako batean:
Rural Kutxa:
3008 0259 163005430321
Kutxabank:
2095 5069 071068489805
■ Oharrak:
-Plaza mugatuak.
-Otordua ibilbidea amaitutakoan egingo da.
-Janaria norberak eraman beharko du, edaria Andatza M.K.T.-ren esku.
■ Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. Federatu gabe dagoenari tramitea egingo zaio, hala nahi badu. Egin beharrekoaren informazioa andatzamendizale.info atarian edo andatza@hotmail.com helbidera email bat idatzita jaso daiteke.
■ Informazio gehiago: andatzamendizale.info
■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.









## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m$^2$ eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m$^2$. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m$^2$, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m$^2$ pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m$^2$ (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m$^2$ trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m$^2$. 637 22 88 60

BOE-ko 79m$^2$ etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

### Alokairuan

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Gizaseme langile edo jubilatu batentzat (nahiago euskalduna). 687 348 223.

Kalezarren etxebizitza alokagai. 3 logela, garajea eta trastelekuarekin 673 547 332.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaia azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro$^2$ lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenea 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munaluurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeko karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m$^2$, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Euskal filologoa, Mondragon Unibertsitateko masterrarekin eta oso kurrikulum zabalarekin eskaintzen da, euskarako klaseak emateko maila guztietan. Klase partikularrak bai akademietan eta enpresetan. 638 917 714

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsesean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezela edo orduka eta astelehenetik ostirale-



**Zorionak Ekhi!** jada 6 urte! Muxu potolo asko eta oso ondo ospatu zure urtebetetze eguna.

## Heriotzak



**Pío Vargas Cabezón**
79 urterekin hil zen irailaren 11n Usurbilen

**OHARRA:** 2017ko irailaren 29an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: irailaren 25ean astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailez, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezela, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

## BESTELAKOAK

Irailaren 13an kakatua txiki bat (ninfa) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

## TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Kutxabank | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco SabadellGuipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Irailak 21 - urriak 01

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 21 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | 22 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| **Larunbata** | 23 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Igandea** | 24 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Astelehena** | 25 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Asteartea** | 26 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| **Asteazkena** | 27 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Osteguna** | 28 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Ostirala** | 29 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Larunbata** | 30 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| **Igandea** | 01 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda iraila

## 22 ostirala

- **Orbeldiko** haurren taldekoen bilera. 18:00etan, Udarregiko erdiko aretoan.
- **Usurbil Cup: 6. jardunaldia.** 16:30–19:30, Haranen.
- **Izen ematea Futbol Eskolan**. 17:00-19:00, Usurbil F.T.-ren Harane zelaiko bulegoan.

## 23 larunbata

- **Eskola Txikiaren Eguna Aginagan.** Egun osoan.
- **Usurbil Cup: 6. jardunaldia.** 10:00–13:30, Haranen.
- **Izen ematea Futbol Eskolan**. 10:30–12:30, Usurbil F.T.-ren Harane zelaiko bulegoan.

## 24 igandea

- **Enrique Abril Errebote Txapelketa**. Partida: Behar Zana-Zubieta. 11:00etan, Zubietan.

# Larunbatean, Eskola Txikiaren Eguna Aginagan

Ikasturtea hasi berritan, laugarrenez ospatuko dute jaien atarian den Aginagan, Eskola Txikiaren Eguna. Irailaren 23rako egun pasa antolatu du bertako guraso elkarteak:

**Irailak 23, larunbata**

- 11:00-13:00 Haurrentzat sormen tailerrak, jolasak, jolas erraldoiak, puzgarriak...
- 14:00 Bazkaria (aurretik apuntatu beharko da).
- 16:30 Munduan Berbena ikuskizuna.
- 18:30 Dantzaldia.



**Bertako guraso taldeak egun osoko festa antolatu du.**

## Orbeldiko haurren dantza taldearen bilera

Taldearen ordutegia finkatzeko bilera egingo dute ostiral honetan, 18:00etan, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. Talde helduen entsegu egunak, aldiz, hauek dira:

- Erromeria taldea, asteazkenetan 19:30-21:00 artean.
- Garaikide taldea, astelehenetan 19:30-21:00 artean.
- Tradizionala, izena ematen dutenen artean finkatuko da ordutegia.

## Eguneko Arreta Zerbitzuaren aurkezpena

Mendekotasun arriskua edo gradu txikia duten Usurbilgo adinekoei zuzenduriko zerbitzu berria aurkeztuko dute irailaren 27an arratsaldeko 18:00etan Artzabalgo aretoan deitu duen ekitaldian. Zerbitzua bera Artzabalen bertan eskainiko da. Ekintza edo ariketa ezberdinak egiteko aukera izango dute erabiltzaileek, haien sozializazioa sustatzeko xedez.

## Datozenak

### Irailaren 29an hasiko da ikasturtea Ziortzan

DBH-ko gazteek irailaren 29n ostirala emango diote hasiera kurtsoari. Arratsaldeko 19:00etan DBH1 eta DBH2 mailako ikasleek; 20:00etan DBH3 eta DBH4ko gazteek. “Ordutegi hauek ez dira behin betikoak, lehen saio hauetan zehaztuko ditugu gainontzekoak zein ordutan izango diren”, Ziortzatik jakinarazi dutenez.

LH5 eta LH6-koen deialdia aurrerago egingo dute, “jubenilena gure sare sozialen bitartez. Beraz, adi egon, bai Instagram (@ziortzage) bai Facebook-eko gure kontuei (Ziortza Gazte Elkartea)”.

### Urriaren 25ean, Irakurketa Topaketa

Ikasturteko lehen irakurketa topaketa urriaren 25erako arratsaldeko 19:00etan iragarri du Sutegi udal liburutegiak. Ana Jakaren “Ez zen diruagatik” lana hartuko dute hizpide, Pako Aristik gidatuko duen hitzorduan. Liburu honen aleak eskuragarri dituzue jada liburutegian. Liburutegia jada ohiko ordutegian zabaltzen dute; astelehenetik ostiralera, 10:00-13:00/16:00-19:30 artean. Larunbat goizetan itxita segiko du urrira arte.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
*Kale Nagusia 10, 1.C4* *20170*
*Tlf 943 37 08 78* RPS: 28/17 *USURBIL*

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

# Ofizioen Gida

**URDAINTZI**
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

**Josue Igeltseritza**
Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu. 28
20170 - USURBIL
606 37 21 05
Igeltseritza orokorra

**Uraitz, s.l.**
Igeltseritza Orokorra
Telefonoa 693059392
e-posta: uraitz@uraitz.com
Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

**ELORZA**
OBRAK ETA ERREFORMAK S.L.
661 804 688
jon.elorza@hotmail.com
SAN ESTEBAN 5, BAXUA

**ARGILAN**
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
629 272 859
943 361 380
BORDA-BERRI 5,baxua USURBIL

PLADUR

**PLAKODUR**
Eskaiola eta Pladurra
943 00 85 44 - 634 45 78 78

**Antonio Urruzola**
AROZTEGIA
Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROZTEGIA
943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL
**J. R. IBARGOIEN S.L.**
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK
www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net
943 36 14 48 - 676 45 31 76

**antenas Telemar**
943 55 33 99
info@antenastelemar.com
Elkano kalea 13, HERNANI

**APARICIO**
DEKORAZIOA ETA PINTURA LANAK
Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL

**Enrique Alonso**
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA
Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
659 675 283

**Iñaki Iturgintza**
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

**JOSEBA ARANGUREN**
ITURGINTZA
943 83 00 72
659 88 39 12

**Rafa**
iturgindegia
• Iturgin lan orokorrak • Dutxako hanparak
• Konfiendatzazko gremioak • Komuneko altzariak
Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04

**AÑORGA TXIKI S.L**
KRISTALDEGIA
· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak
943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

**ventamix**
943 59 32 58
600 80 30 05
LUMON Banatzaile Ofiziala
info@ventamix.com ·Ugaldea polig. 18, USURBIL

ZURE MODA EROSKETAK

# AISIA-OPARI ZUZENETAN BIHURTU ITZAZU




**Bezeroenganako Arreta Gunean trukatu itzazu (BAG)**
**Irailaren 18tik aurrera egindako moda lokaletako erosketen tiketak**
astelehenetik ostiralera 11:00etatik 14:30etara eta 16:30etatik 20:30etara eta larunbatetan 21:30ak arte.

Tiketa bakoitzeko edo tiket batzuen batuketagatik sari bat bakarrik.
Tiketak metatu ditzakezu sari handiagoa lortzeko. Egun berean ezin dira denda bereko 3 tiket baino gehiago aurkeztu.

Baliozko sustapena 15.000€ sarietan eman arte. Sariak azaroak 30era arte erabili daitezke.
www.urbil.es web gunean edo BAG-ean kontsultatu itzazu oinarri osoak.

urbil.es

urbil MADE IN YOU